

**panpano** **ZIRI**  
2011ko abendua aresoko aldizkaria

# **ARESOARRENTZAT SARI, HELDU DA PANPANOZIRI**

**GARAI BATEKO ARESO**

**ARESOKO EUSKARA**

**ARESO IRUDITAN**

**CASILDA IRAZUSTARI ELKARRIZKETA**

**ETA GEHIAGO...**

ZENBAKI  
HONETAN

Gurekin harremanetan jartzeko:  
[laga@iparmank.org](mailto:laga@iparmank.org)

Diseinu eta maketazioa:  
[astidiseinua.com](http://astidiseinua.com)

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:  
**Ana Goñi, Jaione Olazabal, Juana Mari Saizar, Maitane Gereño, Itxaso Onsalo eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.**

Argazkiak:  
**Ana Goñi, Jaione Olazabal, Juan Luis Artola, Pablo Feo, Cecilia Zabaleta, Policarpo Elozegi, Arantxa Pellejero, Peunea, Igaldea, Polañenea, Etxeberria eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.**

**AURKEZPENA 3**

**ARESO: HAINBAT JAKINGARRI 4-5**

**ARESOKO EUSKARA 6-8**

**GABRIEL CELAYA ETA ARESO 9**

**GARAI BATEKO ARESO 10-11**

**IRAGANARI BEGIRA 12-13**

**ARESO IRUDITAN 14-17**

**ARESOKO TOKI-IZENAK 18-20**

**CASILDA IRAZUSTARI 21-23  
ELKARRIZKETA**

**ARESO INTERNETEN 24-25**

**DENBORAPASAK 26-27**

**ALDIZKARIARENTZAKO IZENAK 28**



**P**ANPANOZIRI. Horixe gure aldizkariaren, Aresoko aldizkariaren, izena. Berta-bertako hitz bat hautatu dugu, herritarrek proposatua, berta-bertakoa izan nahi duen aldizkariarentzat. Izena eta izana, biak ere hurbilekoak izatea nahi genuen, eta horretarako egin ditugu eginahalak.

Aldizkari honetan zer aurkituko duzun? Era askotako kontuak: datuak, historia, istorioak, argazkiak, izenak, hitzak, esamoldeak, elkarrizketak, bitxikeriak. Guztiak ere Aresorekin lotuta daudenak, eta gure herria hobeki ezagutzen lagunduko digutenak. Baita, espero dezagun,

herria gehiago estimatzen lagundu digutenak ere. Izan ere, herria hobeki ezagutzea eta estimatzea beharrezkoa da herri-giroa hobetu eta bizimodua alaitu eta hobetzeko.

Eskuetan duzun aldizkaria osatzeko lantaldetxo bat aritu da lanean. Deialdi irekia egin zen, eta animatu zirenek osatu dute aldizkaria. Aldizkaria osatu ahala, Areson bertan ikasteko eta ikusteko gauza asko dagoela ohartu gara. Herri txikia izanagatik, badugu historia, eta baditugu hamaika istorio herritarrei gertatutakoak. Herri euskalduna da gurea, eta euskararen aberastasun hori gure

hizkera propioan jasota dago, baita herriko toponimia aberatsean ere.

Aldizkarian, bestalde, argazki asko ikusiko dituzue, aspaldikoak batzuk, berri-berriak besteak. Aldizkaria bera, azken batean, Aresori egindako argazki baten modukoa da, hitzez eta irudiz osatutako erretratua. Atsegin gertatuko zaizuela espero dugu, eta lan honek aurrerago segida baldin badu, ekarpenak egiteko eta parte hartzeko atea zabalik izanen duzue.

Besterik gabe, aurrera egitera eta PANPANOZIRI aldizkarian murgiltzera gonbidatzen zaitugu.

# ARESO: HAINBAT JAKINGARRI

**H**onako erreportaje honetan Aresori buruzko zenbait jakingarri ikusiko dituzu. Horietako batzuk lehendik ere ezagutzen zenituen akaso, beste batzuk agian ez. Datuak hona ekarrita, herriari nolabaiteko argazkitxoak egin nahi izan diogu, aresoarrak eta aresoarrak ez direnek herriaren ikuspegi osatuago bat izan dezagun, gure herria hobekixeago ezagutzeko egiten ari garen ahaleginean.

## Populazioa

Aresoko populazioak, toki gehienetan bezala, gorabehera handiak izan ditu historian zehar. Ondoko taulan eskainiko ditugun datuetatik zaharrena 1877. urtekoa da, eta orduan Areson 491 herritar bizi ziren. Badago aldea gaur egungo 277 biztanle kopuruarekin alderatuta!

Biztanle kopuruak, beraz, behera egin du nabarmen, nahiz eta beherakada hori ez den kolpean gertatu. Ondoko taulan agertzen da bilakaera hori.

| Urtea | Biztanle kopurua |
|-------|------------------|
| 1877  | 491              |
| 1900  | 457              |
| 1910  | 521              |
| 1920  | 540              |
| 1930  | 521              |
| 1940  | 451              |
| 1950  | 427              |
| 1960  | 390              |
| 1970  | 385              |
| 1981  | 310              |
| 1991  | 277              |
| 2000  | 293              |
| 2010  | 277              |

Beherakada hainbat arrazoiengatik gertatuko zen, eta orain ez ditugu horiek aztertuko. Norberak egin dezakeen

gogoeta interesgarria da hori. Hala ere, gai honekin lotutako beste datutxo bat ekarriko dugu hona, azkeneko urteotan Areson jaioetako haur kopurua hain zuzen ere. Honatx:

| Urtea | Biztanle kopurua |
|-------|------------------|
| 2000  | 2                |
| 2001  | 0                |
| 2002  | 4                |
| 2003  | 1                |
| 2004  | 6                |
| 2005  | 3                |
| 2006  | 1                |
| 2007  | 4                |
| 2008  | 3                |
| 2009  | 3                |
| 2010  | 1                |

Egia esateko nahikoa gorabeheratsua da azkeneko urteotako kopurua, baina batez bestekoa 2,5ekoa da. Urte "onak" izan dira tartean (2004koa, esaterako), baina baita umerik gabekoak ere (2001). Ea datozen urteek 2006koaren antza har-

tzen duten, eta Aresoko etorkizuna lotzen jarraitzen dugun.

## Geografia, kokapena eta ingurua

Areso Nafarroako ipar-mendebaldean kokatuta dago, Gipuzkoarekin muga eginez, Iruñeko merindadean. 7 udalerrik egiten dute Aresorekin muga, honakoak hain zuzen ere: Araitz, Larraun, Leitza, Berastegi, Gaztelu, Lizartza eta Oresa.

12,2 km<sup>2</sup>ko azalera dauka Aresok, eta 498 metroko altueran dago.

Euskal Herriko hiriburuetarako distantziak hauek dira:

|          |        |
|----------|--------|
| Iruñea   | 48 km  |
| Donostia | 48 km  |
| Baiona   | 98 km  |
| Gasteiz  | 108 km |
| Bilbo    | 168 km |

Inguru menditsua eta hezea da gurea, eta bertako mendietan, pagoa, haritza, pinua, urkia, intxaurrendoa eta gaztainondoa dira nagusi. Ibai ondoan makalak hazten dira eta etxe ondoko zelaietan sagarrondoak ere badira.



Hauek dira bertako mendi batzuen izenak: Urteaga, Ulizar, Merku, Museo, Gainarbe eta Irumugarrieta. Ibai edo erreka nagusiak Matxain eta Astomela erreka ditugu, eta auzoak Sakulo, Otarre eta Belaku.

Etxeko animalietan, ardiak, behiak, oiloak eta behorrak dira nagusi. Inguruko basoetan, basurdeak eta azeriak. Hegaztietan, berriz, saiak nagusitzen dira zeru gainean eta udazken partean, iparraldetik hegoaldera, beroaren bila doazen usoa. Garai horretan, herriko eta ingurueta-ko ehiztari ugari hurbiltzen dira, herriko mendietan dauden 53 uso postuetara. Astomelan, amuarrainak arrantzatze-ko barrutia dago.

## Ekonomia

### Nekazaritza eta abeltzaintza

Garai batean aresoar gehienak nekazariak edota abeltzainak baziren ere, gaur egun oso gutxi dira jarduera horretan aritzen direnak.

Herrian, behi granja bakarra dago. Orokorrean nekazaritza eta abeltzaintza bigarren mailako ekonomia iturri bihurtu dira. Etxeko baratzeetan, kontsumo propioarako produktuak landatzen dira: patata, tomatea, artoa, tipula, banabarra... eta animaliak, behiak, ardiak, oilaskoak eta behorrak etxeko ukiulu eta belazee-tan egoten dira, hauek ere kontsumo propioarako.



### Industria

Aipatzekoa da, XIV. mendetik badela Aresoko burdinolen berri. 1860. urtean horietako bik, Domingoeneak eta Olaberriak, lanean jarraitzen zuten, eta bertan nekazaritzarako materialak egiten ziren.

70. hamarkadan, industrializazioaren goren gorenean, landa eremuetako esku lan asko industriara bideratu zen. Aresoar askok Leitza eta Iruñera jo zuten, fabriketan lan egitera.

1995.az geroztik Aresok badu industrialdea, eta horrek ere herritar askori lana eman dio.

### Hizkuntza

Euskara da bertako hizkuntza, eta bertako herritar gehien-gehienak, % 95, euskaldunak dira. Euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da bertan, eta Aresoko Udala UEMAko partaidea da

(Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea). Aresoko Nazabal Ikastetxean ere ikasketak euskaraz egiten dituzte bertako umeek, eta herriko eguneroko bizitzan herritarren arteko harremanetarako ohiko hizkuntza euskara da.

### Administrazioa


Garai batean Leitzarekin elkartuta udal bakarra osatzen zuten arren, 200 urte-tik gora joan dira Aresoko Udalak udal bakarra osatu zuenetik, eta gaur egun ere hala da.

Aresoko Udalak, nolana ere, hainbat zerbitzu eta eskumen inguruko eta eskualdeko beste udal batzuekin batera kudeatzen ditu.

- **Euskara:** Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko partaidea da Areso. Aranotik hasi eta Anueraino iristen da Mankomunitatea, eta 13 udaleri biltzen ditu.
- **Gizarte Zerbitzua:** Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sartuta dago Aresoko Udala, Leitza, Arano eta Goizuetarekin batera.
- **Kirola:** Kirolaren inguruko kudeaketa, Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraungo Udalekin batera egiten da.
- **Hiri Hondakinak:** Aresoko Udala Mendialdea Mankomunitateko partaidea da. Arano, Goizueta, Leitza, Lekunberri, eta Larraun dira mankomunitatea osatzen duten gainerako Udalak.
- **Turismoa:** eskualdean Plazaola Partzuegoak kudeatzen du turismoaren alorra. Bertan dago Aresoko Udala, Araitz, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Irurtzun, Larraun, Leitza, Lekunberri eta Ultzama-koarekin batera.



# ARESOKO EUSKARA



Euskalkiak eta azpieuskalkiak.

**E**uskara izan da, eta gaur egun ere hala da, Aresoko hizkuntza nagusia. Eta hala izan da, ziur asko, herria sortu zen momentutik. Egia da, jakina, euskara ez dela soilik aresoarren ondarea. Zorionez, Euskal Herriko beste herri askok eutsi diote gure hizkuntzari, eta horri esker bizirik dugu oraindik.

Euskara, beraz, beste askorekin partekatzen dugun ondarea da, baina badugu guk soilik bertakoa den ondare bat: bertako euskalkia. Areson euskaraz egiteko erabiltzen den forma partikularra, Aresoko hizkera, soilik hemen aurkituko dugu. Badu ingurukoekin nolabaiteko antza, noski. Antza handiagoa dauka Leitzako edo Gorritiko hizkerarekin Lekeitiokoarekin edo Maulekoarekin baino.

Baina ezberdina ere bada, eta aresoarraren belarriak berehala bereziko ditu berea eta ondoko herrietako hizkera. Ez da gauza hain bitxia, euskalkia gorde duten herri guztietan gertatzen baita, baina kontuan hartzekoa da, interesgarria, eta, gure ustez, herriari berari nortasun puntu bat ere ematen dio.

Duela 10 bat urte argitaratutako "Leitza eta Aresoko hizkerak" aldizkariko partete batek zioen moduan:

"Hizkera horren bitartez adierazi dituzte aresoar eta leitzarrek pozak eta haserreak, minak eta atseginak. Hizkera horren bitartez ikasi dituzte bizitzeko behar zituztenak, eta bertara isuri dituzte beren esperientziak eta bizipenak, barreak eta negarrak. Atzenerako, hizkera bizia, aberatsa, ongi hornitua eta kolore bizikoa utzi digute. Miresteko, hala nahi izanez gero, baina batez ere erabiltzeko."

Aresoko euskalkiari buruzko zertzelada batzuk ekarriko ditugu hona, geure euskalkia bera hobeki ezagutzen eta estimatzen lagunduko digulakoan. Ahaztu gabe, noski, garrantzitsuena, ezagutzea eta estimatzea baino gehiago, erabiltzea dela.

## Aresoko euskara, euskalkien mapan

Euskalkien maparik ezagunena Bonaparte printzeak egindakoa da, ziur asko. 1860. hamarkadan egin zuen, eta duela gutxi arte erreferentzia nagusia huraxe izan da. Mapa horretan, eta Bonaparteren sailkapenean horrenbestez, Aresoko euskara Iparraldeko Goi-nafarreran kokatuta agertzen zen, Leitza eta Larraungo hizkerekin batera, "Araizko" azpieuskalkian hain zuzen ere. Gipuzkoa aldeko herrietakoak, Berastegitik haragokoak, gipuzkeran kokatu zituen Bonapartek. Guk dakigula behintzat, Bonaparte printzeak ez zuen Areson bertan euskalkiaren lekukotasun edo testigantza zuzenik jaso.

Sailkapen horri urte askoan eutsi zitzaion, baina azken urteotan ikuspegia

aldatuz, berrituz eta egokituz joan da, batez ere Koldo Zuazo ikertzailearen eskuetik. Zuazok mapa berri bat osatu du, euskalkien sailkapena berritu du, eta Aresoko hizkeraren sailkapena bera ere egokitu egin da. Gaur egun, Zuazoren sailkapenean eta mapan behintzat, Aresoko hizkera erdialdeko euskalkian sartzen da, Araitz, Betelu, Leitza, Arano eta Larraungo herriein batera. Erdialdeko euskalki horretan, bestalde, Gipuzkoako hizkera gehienak sartzen dira. Goizuetako hizkera, esaterako, "Nafarra" izeneko euskalkian sartzen du, aipatu berri ditugun horietatik bereiziz.

Sailkapen honetan, nolana ere, Aresoko hizkera erdialdeko horren barruan bete-betean sartzen du, baina Leitza, Ezkurra, Lekunberri, eta Larraungo beste hizkera batzuk trantsizioko hizkeratzat hartzen ditu. Alegia, nolabait esateko, beste horiek Nafarreraren eta erdialdeko euskalkien arteko zubi-hizkerak dira.

### Aresoko euskararen ezaugarriak

Aresoko hizkera euskalkien mapan kokatu ondoren, eta sailkapen hori matematika hutsa ez dela aitortuta, Aresoko

hizkeraren inguruko jakingarri batzuk aipatuko ditugu, Mikel Olanok egindako eta Euskara Mankomunitateak argitaratutako lanean oinarrituta: *Areso eta Leitza hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena* liburua.

Duela 10 bat urte liburu horretan oinarrituta Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkari batean, taula batzuk eman ziren, Aresoko hizkeraren ezaugarrien berri emateko. Hainbat aditz, izen, esalditxo... agertzen dira bertan, eta nahikoa modu errazean eta garbian erakusten dute gure hizkerak besteeikiko duen aldea. Hona ekarri ditugu horietako batzuk:

### Areso eta Leitza hizkerak. Zertan dira desberdin?

| Euskara batua                                   | Berastegi                                       | Areso  | Leitza   | Arano                           | Goizueta                                    |
|---|---|--|--|---------------------------------|---|
| Etorri da                                       | Etorri da                                       | Etorri (da)                                      | Etorri (d)e  | Da                              | Da  |
| Dakizu<br>Daukazu<br>Ditu<br>Gaitu              |   | Dakizu<br>Dakezu<br>Dittu<br>Gattu               | Dakizo<br>Daukezo<br>Ditto<br>Gatto                    |                                 |   |
| Jan, Joan                                       | Jan, Joan                                       | Jan, Joan  | Yan, Yoan  | Jan, Joan                       | Yan, Yoan                                   |
| Etortzeagatik                                   | Etortzeagatik<br>(-gatiken)                     | -(g)ati<br>-(g)atik<br>-(g)atio                  | -(g)atik<br>-(g)atiken                                 | -gatik                          | -gatik                                      |
| Egoten<br>Ematen                                | Eoten<br>Ematen                                 | Eoten<br>Ematen                                  | Eotten<br>Ematten                                      | Eoten<br>Ematen                 | Eotten<br>Ematten                           |
| Jango/janen<br>Esango/esanen                    | Jango<br>Esango                                 | Jango<br>Esango                                  | Yanen, yaan<br>Esanen, Esaan                           | Jain, jango<br>Esain, esango    | Yain, yango<br>Esain, esango                |
| Zara<br>Gara<br>Zarete                          | Zea<br>Gea<br>Zeate                             | Zea<br>Gea<br>Zeate                              | Za, zaa<br>Ga, gaa<br>Zátea                            | Ze<br>Ge, gea<br>Zete           | Zaa<br>Ga<br>Zate                           |
| Dut<br>Dugu<br>Duzu                             | Det<br>Deu<br>Dezu                              | Det<br>Deu<br>Dezu                               | Dot<br>Du, duu<br>Dozo                                 | Dut<br>Duu, gu<br>Duzu          | Dut<br>Du<br>Zu, zo                         |
| Gaude<br>Zaude<br>Daude                         | Gaude<br>Zaude<br>Daude                         | Gai<br>Zai<br>Dai                                | Gaude<br>Zaude<br>Daude                                | Gaude<br>Zaude<br>Daude         | Gaude<br>Zaude<br>Daude                     |
| Genuen<br>Zenuen<br>Genion<br>Zenion<br>Geunden | Gendun<br>Zendun<br>Giñion<br>Ziozun<br>Geunden | Gendun<br>Zendun<br>Gendion<br>Zendion<br>Genden | Giñun<br>Ziñun<br>Giñion<br>Ziñion<br>Giñauden/geunden | Giñun<br>Ziñun<br>Genin/Giniyon | Gunun<br>Zunun<br>Ginin<br>Zinin<br>Gaunden |
| Gabe  | Gabe  | Bai, bae   | Gabe   | Gabe                            | Gabe  |
| Belardi/belartza                                | Belaze  | Beaze  | Belatso  | Belasoro                        | Belaso                                      |
| Ezer  | Ezer  | Deus, ezer                                       | Deus   | Ezer, deus                      | Deus  |
| Iratze, garo                                    | Garo  | Garo   | Ixtor  | Iratze                          | Iratze                                      |
| Gorotz  | Gôtz  | Ongarri  | Gorotz   | Gorotz                          | Gorotz                                      |
| Soro  | Soro  | Soro   | Alor   | Alor                            | Alor  |

## Areso eta Leitza gure mendebaldeko hizkerekin bat


| Euskara batua | Areso eta Leitza | Mendebaldeko hizkerak (Berastegi, Goierri...) | Ekialdeko hizkerak (Goizueta, Arantza...) |
|---------------|------------------|---|---|
| Burua, mendia | Burue, mendie    | Burue, mendie                                 | Burua, mendia                             |
| Dute, dakite  | Due, dakie       | Due, dakie                                    | Dute, dakite                              |
| Haiz, huen    | Haiz, Huen       | Haiz, Huen                                    | Yaiz, yuen                                |
| Utzi egiten   | Utzi egiten      | Utzi egiten                                   | Utzi egitera                              |
| Gora-behera   | Gora-behera      | Gora-behera                                   | Gotti-betti                               |
| Asko, anitz   | Asko             | Asko  | Anitz, asko                               |

## Areso eta Leitza gure ekialdeko hizkerekin bat

| Euskara batua        | Areso eta Leitza     | Mendebaldeko hizkerak (Berastegi, Goierri...) | Ekialdeko hizkerak (Goizueta, Arantza...) |
|----------------------|----------------------|---|---|
| Koltxoia, kamioia    | Koltxobea, kamiona   | Koltxoia, kamioia                             | Koltxona, kamiona                         |
| Ongi, ondo           | Ongi                 | Ondo  | Ongi                                      |
| Hobeto, hobeki       | Hobeki               | Hobeto  | Hobeki                                    |
| Den, zen, dela, zela | Den, zen, dela, zela | Dan, zan, dala, zala                          | Den, zen, dela, zela                      |
| Doa, zihoan, dihoaz  | Die, zien, dizte(a)  | Nijoa, dijoa, dijoaz                          | Dio, zion, dioz                           |
| Nator                | Heldu naiz           | Nator   | Heldu naiz                                |

## Galbidean dauden zenbait ezaugarri

| Garai batean Areson eta Leitza | Gaur egun Areson eta Leitza |
|--------------------------------|-----------------------------|
| Horiendako                     | Hoientzat                   |
| Delakoz                        | Delako                      |
| Hietan ehun, seietan ehun      | Hirurehun, seirehun         |



Herri bakoitzak, ikusten denez, bere hizkera propioa dauka. Baita Aresok ere. Zenbait alderditan mendebaldeko edo Gipuzkoa aldeko herrien antza dauka, eta beste zenbaitetan hurbilago dago ekialdeko eta Nafarroako herrietatik.

Honen guztiaren berri idatziz eta xeheago ikusi nahiz izanez gero, artikulu honetan aipatu ditugun iturrietara jo dezakezu: Mikel Olanoren *Areso eta Leitza hizkerak*. *Bertako hitz eta historian barrena* liburua, batetik, edo liburu horren laburpen modu-

koa den *Areso eta Leitza hizkerak* aldizkaria, bestetik. Bertan informazio ugari eta zehatza aurkituko duzu, Aresoko hizkeraren deskribaketa sakona ikusiko duzu, eta baita hizkera horren ezaugarriak ulertzeko hainbat ideia interesgarri ere.



# GABRIEL CELAYA ETA ARESO



**A**urten bete dira ehun urte Gabriel Celaya poeta Hernanin jaio zela, 1911ko martxoaren 18an. Koldo Mitxelena Kulturuneak beraren jaiotzaren mendeurrena ospatu du martxoan. Gabriel Celaya izan zen gazteleraz idazten zuen euskal idazlerik gailenentarikoa. Betidanik izan zuen irakurketa gustuko. 17 urterekin Madrilera joan Ingenieritza ikasketak egitera eta bertan ezagutu zituen garai hartako intelektual ospetsuenak, hala nola García Lorca, Dalí, Buñuel... Frankoren tropen gatibu izan zen, Nicolás Guillénen eskutik Cubara bidaiatu zuen, hainbat aldizkari sortu eta hainbat liburu argitaratu zituen, eta gerra osteko olerkaririk konprometituenetakoa bilakatu zen 80 urte zituela, 1991. urteko apirilaren 18an, Madrilen hil zen arte.

Berak idatzitako hainbat olerkiren artean, bada Aresoko herritar bati aipamena egiten diona. 1977. urten argitaratutako **Poesías completas (1940-1948. Tomo II)** liburuan aurkitu daiteke. Olerki hori irakurrita bururatuko zaizuen lehenengo galdera benetan gertatutako maitasun istorioa ote den izango da.

Ongi legoke hori ziurtatu ahal izatea. Aldizkari hau argitaratu denean ordea, oraindik ezin izan dugu horrela denik baieztatuz. Norbaitek zerbait jakingo

balu, aldizkari honi jakinaraztea eskertuko genuke.

Hona hemen olerki horretako zati batzuk.

PALOMERAS de Etxalar,  
Abrid la red y dejad  
Que una paloma escapada  
Vuele más y más allá.

*Maitia, tu en Gaztelu.  
Maitia, yo en Areso.  
Tan poca es la distancia!  
Tan grande el sentimiento!  
Maitia, tú, tan joven,  
Quizás te estés riendo.  
Maitia, yo te lloro  
Por mis mil recovecos,  
Porque sí, porque no,  
Porque te quiero y quiero.  
Txiru-liluri-lili!*

- canto - ¿te acuerdas? – y, ay, muero!  
Paloma, vuela a Gaztelu  
Y haz de un suspiro, mil besos.

(lehendabiziko bertsoa)

Palomas de Etxalar,  
abrid la red y dejad  
que la vida, abriendo el sueño  
de la muerte, nos dé paz.

*Ya se besan los dos novios,  
Ay, más allá del deseo!  
Ella viene como ausente  
Y el sintiendo un pensamiento  
Cómo suenan las campanas  
En Gaztelu y en Areso!  
suenan a gozo perdido;  
suenan a muerte y deseo;  
y parece que en el mundo  
Tan sólo existe un gran eco;  
Y en él me escucho a mí mismo,  
Y es real en él un miedo.*

(seigarren eta azken bertsoa)

# GARAI BATEKO ARESO

Azkeneko urteotan Areso nola aldatuz joan den denok ikusi dugu. Baina ariketa polita da garai bateko Areso, eta aresoarrak, nolakoak ziren ikustea. Horretarako, gure eskuetara iritsi diren argazki zahar batzuk ekarri ditugu. Badira tartean 100 urte baino gehiago dituztenak. Argazkietan jarri dugu bakoitza gutxi gorabehera noizkoa den, jakiteko modua izan dugunean. Ea irudi horietan zer eta nor ezagutzen duzuen.





1900 gutxi gora behera

1970



1930



1920



1920

# IRAGANARI BEGIRA

**Z**aila da Areso bezalako herri txiki baten historiak jabetu eta hitz gutxi batzuen bidez modu interesgarri batean aurkeztea; horrenbestez, gure gogo eta herri honekiko dugun konpromiso guztia jarri dugu, guztiok eskuragarri izan dezagun gure herriak eta bertako herriarrok bizi izan dutena. Eta horretarako, historian atzerantz egin eta saia gaitezen aipatzen diren gertaeretan murgiltzen. Lan hau osatzeko hainbat iturrira jo dugu; Interneten dauden edo liburutegitan aurki daitezkeen agiriak eta dokumentuak, esate baterako, eta baita Patziku Perurenak utzitako zenbait lan ere.

## HISTORIA

Aresori buruzko lehenengo dokumentu idatziak 1192. urtekoak dira. Antso VII.a Azkarra erregeak Aresoko biztanleei "privilegio de hidalgia" izenekoa eman zien haien arteko sosak konpondu zituztenean. Honela, baimen pertsonala eman zien bertako mendietan abereak edukitzeko; urtero, zerga moduan, ganadu talde bakoitzeko bat sakrifikatu behar zuten.



Areso muga ondoan eta ibai ertzean egoteak Gipuzkoako auzo herriekiko gatazkak bultzatu zituen. Gipuzkoarrek, esate baterako, herria erraustu egin zuten 1444. urtean. Honenbestez, gizon askok,



Leitza eta Areso bi udaletan banatu ziren, 1770. urtean.

beren emazte, ume eta familiak hartuta, kanpora emigratu zuten. Bertan gelditu ziren biztanleek 1445. urtean Vianako Printzearengana jo zuten, eta kuartelak, "eiurdea" eta urde-bostena ordaintzetik salbuetsi zituzten, beste frankizia eta pribilegio batzuk emateaz gain.

1770. urtea baino lehen gure herria Leitzako Udalarekin lotuta egon zen, baina haien arteko gatazkak zirela eta, banatzea beste biderik ez zuten ikusi.

Areso hainbat aldiz okupatua eta suntsitua izan da, baina horietako batek izugarrizko ondorioak utzi zituen. Konbentzio gerra garaian izan zen, hain zuzen ere, 1793-1795 urteen artean. Gerra horretan, Tolosan barna zetozen frantsesak 1794. urteko irailaren 10ean gure herrira iritsi ziren izugarrizko suteak eta heriotzak eraginez; besteak beste Juan Bautista de Huici Martikoñeneakoa, Magdalena de Irurtia Tenegiñeneakoa, eta Francisco de

Otermin. Beste batzuk etxeko suteen garretan harrapatu hil ziren, Francisco de Oronoz esate baterako. Aipaturiko herritar guztiak eta beste hainbat eta hainbat herriko San Esteban ermitan lurperatuak izan ziren, egun desagerturik dagoena, Jasokunde Eliza erre egin baitzuten. Egoera honen erdian bi etxe salbatu zirela aipatu behar da, bata Peunea eta bestea Zubidi.

Esandako guztiaren ondorioz, bizirik aurrera jarraitzea lortu zuten herritarrek alde egin edota bota gabe gelditu ziren bordetan bizitzera joan behar izan zuten. Urte horretan bertan, azaroan, herriaren egoera oraindik oso aztoratua zegoela, frantses armadak berriro Areso zeharkatu zuen; izan ere, soldaduen artean izurri bat zabaldu zen eta, derrigortuta, amore eman eta atzera bueltatu behar izan zuten. Esan beharra dago armada frantsesaren bigarren agerpen hau lehenengoa bai-

no ere okerragoa izan zela, herria berriro suntsitzeaz gain ekarri zuten epidemia herrian zabaldu baitzuten. 1794. urteko otsailaren 27tik 1795. urteko abuztu birtarte Areson 450 biztanletik 72 pertsona hil egin ziren, haurrak kontatu gabe. Izurriteagatik ia familia guztietan izan ziren hildakoak. Ahoz ahoko tradizioak dioenez, Gorrititik San Migel aingerua etorri zen, berarekin elurra ekarri eta gaixotasuna erauzi eta desagerrarazi zuen. Elizan aurkitutako dokumentuetan, garai honi dagokion egoera idatzi honetan jasotzen da:

“Frantsez ijara luzeak, bean gisa jarri gaituzte goseak, hamalau laguneko famili batean ane bat ta erdi, ardo hilabeteen. Artoa eskas, kalabazak jaki. Gu nola bizi garen. Gure Jainkoak badaki”.

1840. urtean, Lehenengo Gerra Karlistaren amaieran, beste izurrite bat izan zen. Izurrite horrek urtarrilaren 7tik otsailaren 8ra 17 pertsona hil zituen, eta hildako horietatik 13 ez ziren 34 urtera iristen.

Urte batzuk beranduago, 1934. urtean hain zuzen ere, Areso eta Leitza elkarrezeko saiakerak egin ziren, eta ondorioz hainbat gatazka gertatu zen bi herrien artean. Horien ondorioz sortu ziren guztiok entzun ditugun “Aresoarren Bandera” istorioa eta bertsoak.

### AZEARI SUMAKILA

Kondaira zaharrak dioenaren arabera, Areson ba omen zen dorretxe edo gaztelu txiki bat, eta bertan bizi izan omen zen Azeari Sumakila, Aresoko bidelapurra. Gaizkile ezagun honen istorioa Arturo Kanpionen Don García Almorabid lanean agertzen da. Azeari Sumakila pertsonaia historikoa izan zen eta benetako izena Don Pedro Martínez de Oyanederra zuen. Jauntxo noblea zen, eta kontatzen denez, Doña Elvira haren emaztea azken hatsa ematekotan zela, Don Pedrori deitu zion sekretu bat aitortu nahi ziola eta: zituzten hiru seme-alabetatik bat ez zen Don Pedrorena, ezkontzaz kanpoko harreman baten fruitu baizik. Jauntxoak, amorraren



amorruez, hiruen bila joan eta emaztearen ohe ondora ekarri zituen, eta zein ez zen berea galdetu; baina emazteak txintik ere ez zuenez esaten, hantxe lotu eta su eman zien denei. Burua galduta ihes egin zuen, norabide jakinik gabe, bere zaldia akiturik geratu zen arte. Don García Almorabiden aurrera preso eraman zutenean, heriotza zigorra jarri zioten. Don García, ordea, haurtzaroko lagun mina zuen, eta zigorra betetzearen plantak egin eta ihes egiten utzi zion, betirako basailutza zin egitera behartu ondoren. Horrela desagertu zen Don Pedro, eta Azeari Sumakila agertu, eta gaizkile talde batekin, Aresoko dorrean jarri zen.

1276an gerrarako laguntza eskatu zion Don García Azeari Sumakilari. Iritsi zenean, aspaldi Azearik berak Lur Sainduti Doña Elvirarentzat ekarri zuen erlikiak gordetzeko kaxa deskubritu zuen, eta honelaxe jakin zuen Don García lagun mina izan zela emazte Doña Elviraren maitale sekretua. Azeari bere mendietara itzuli zen orduan, mendeku hartzeko asmoarekin. Don García Andiako mendilerroan erori zen bere eskuetan, eta berehala ulertu zuen azken ordua iritsi zela: harrikatuta hil zuten, adulteriogileentzako zigorarekin, alegia.

### SORGINKERIAK

Nafarroan XVI-XVII. mendeetako lau ibilbide aurkitu dira sorgin eta akelarreekin

zerikusia izan dutenak; ibilbide horietan, kristau fedearen kontrako erritualak egiten omen zituzten eta horretarako mendi inguruko gunek aukeratzen zituzten. Gure inguruari dagokionez, hirugarren ibilbideak hartzen du, Anue-Olaguen hasi eta Areson bukatzen denak hain zuzen ere.

Kasu honi buruz bitxikeria bat aipatuko dugu: 1563. urtean Aresoko Katalina de Maringo atxilotu zuten, 20 urterekin. Katalinak aitortu zuen zapoekin eta saguzarrekin egindako hauts batzuk egiten zituela eta hauts horien bidez, astelehenero, asteazkenero eta ostiralero, beste 34 pertsonarekin izugarrizko akelarreetara joaten zela. Atxiloketa prozesuan zehar gaixotu eta kartzelatik ateratzeko baimena lortu zuen, eta baimen hura aprobetxatu zuen herritik alde egin eta inoiz gehiago ez agertzeko.

1576. urtean inkisidoreek Larraun, Leitza eta Areso inguruetan sorginkeria arrastoak aurkitu nahirik ibili ziren. Gure herrian bederatzita pertsona atxilotu zituzten sorginkeriarekin zerikusia zuten ekintzetan parte hartzeagatik. Areson egin zuten bilaketan Uli mendian kobazulo bat aurkitu zutela aipatzen da, 300 bat pertsona sartzeko modukoa, baina bertan ez zuten ezer berezirik gehiago aurkitu, ez zuten inolako idatzirik utzi. Hala ere, Santa Kruz ermita eraikitzeke agindua eman zuten gunek hori garbitzeko asmoz.

# ARESO IRUDITAN

Areso nolakoa den hitzez azal daiteke, eta horretan saiatu gara aldizkari honetan, neurri batean bederen. Baina ez da modu bakarra: irudiek ere ongi aski erakuts dezakete gure herria zer den, nolakoa den. Atal honetako irudi eder hauek Ana Goñik jaso ditu: Areson bertan ikus ditzakegun animaliak, landareak, etxeak edo parajeak ditugu, denon gozagarri.











# ARESOKO TOPONIMIA: IZENA ETA IZANA


Izena eta izana oso estu lotuta agertzen zaizkigu askotan. Izenak, alegia, izanaren berri ematen digu maiz. Eta ez da urrutira joan behar horretaz ohartzeko, Areson toki-izenetan bertan aurkituko baititugu horren adibideak: Azarizuloeta, Biarrieta, Elutsandi... izen horietan, izerdi handirik egin gabe, gordetzen duten esanahia ikus dezakegu.

- **Azarizuloeta:** azeri zuloak dauden tokia.
- **Biarrieta:** bi harri edo harkaitz dauden tokia.
- **Elutsaundi:** eluts (toki ospela) handia.

Beti ez da, jakina, hain erraza eta argia izaten kontua. Sarritan izen baten atzean zer dagoen asmatzea ez da batere erreza, eta agiri zaharren edota hizkuntzalari adituen laguntza behar izaten da. Eta beste batzuetan, berriz, ez dago modurik izen baten esanahiaz fundamentuzko proposamen bat egiteko.

Beste kontu bat da, nolahi ere, izenen esanahia ulertzeko norberak egin dezakeen ahalegina, denbora-pasa gisa besterik ez bada. Ariketa polita baita, izan ere, ezagutzen ditugun izenen interpretazioa egiten saiatzea. Pixka bat saiatuz gero, emaitza polita eta harrigarria lor dezakezu.

Artikulu honetan toki-izenez ariko gara, baina beste batzuek egindako ahaleginaz eta lanaz baliatuko gara. Duela urte batzuk Nafarroako Toponimia eta Mapagintza izeneko liburu sorta argitaratu zen, eta sorta horietako liburuki batek Areso eta Leitzako toki-izenak biltzen ditu. Hortxe daude jasota, horrenbestez, gure herrian bildutako hainbat izen. Eta ez izena soilik. Izenarekin batera, izen horren beraren inguruko hainbat jakin-garri: izena jasotzen duten aspaldiko dokumentuen erreferentzia; herritarrek izen hori nola esaten edo ahoskatzen duten; mapan non kokatzen den; eta, zenbait kasutan, izen horren inguruko argibideak



eta izenaren esanahiaren inguruko proposamenak.

Liburu horretan jasotzen diren izenak, bestalde, izen ofizialak dira. Gerta liteke, eta gertatzen da, gerok beste era batean esatea —eta hori ez da bekatu, jakina—, baina izenaren forma ofiziala hor agertuko dena izanen da. Hurrengo orrialdean, liburu horretan bilduta dauden izen guz-

tien zerrenda ikus dezakezue, alfabetikoki ordenatuta. Guztira, 264 toki-izen.

Horiek dira lehen aipatutako liburuan agertzen diren izen guztiak, denak ere Areson jasoak. Horietako asko, ikusiko duzun moduan, interpretazio errazekoak dira, esanahi argikoak. Berriz ere esanen dugu, izen horien interpretazioa eta esanahia zein den asmatzen saiatzea ari-

## ARESOKO TOKI-IZENAK

|                             |                          |                        |                       |
|-----------------------------|--------------------------|------------------------|-----------------------|
| Abaleku                     | Biureta                  | Iturrieta              | Pitoenea              |
| Abauteko mintegia           | Boneneko borda           | Iturriko soroa         | Pitoenesoro           |
| Ainbaspikoa                 | Bordaburu                | Iturtxo                | Puñaleneko borda      |
| Albitxuri                   | Bordapea                 | Iturtzabal             | Putreen harkaitza     |
| Albitxuriko erreka          | Bordasoro                | Joanesiturria          | Sagaseta              |
| Alkozko borda               | Bultzarron               | Joxemariren txabola    | Sagastibeltza         |
| Alkozko mallo               | Bunuko aldapa            | Juantoneko borda (1)   | Sagastine             |
| Alpaiteneko borda           | Burkaitz                 | Juantoneko borda (2)   | Sagastitxipi          |
| Alpaiteneko bordako iturria | Burkaitzapia             | Julianeneko borda      | Sakolo                |
| Altxaiño                    | Eberreko borda           | Kalderosoro            | Sakoloko bidea        |
| Altzegi                     | Eberreko bordako borda   | Kamiobizkar            | San Esteban           |
| Altzegiko iturria           | Eberreko bordako txabola | Labaki                 | Santa Kruz            |
| Ametzeta                    | Egiaundi                 | Landa                  | Santuru               |
| Ametzetako erreka           | Egiluze (1)              | Langaburu              | Santuruko borda       |
| Amillarro                   | Egiluze (2)              | Lapurzulo              | Semero                |
| Anoseneko borda             | Egiluzeko erreka         | Larreko belatzeaundi   | Soramearreta          |
| Antzolaga                   | Egitxipi                 | Larreko borda          | Soramearretako aska   |
| Antzolagako bidea           | Egitxipiko erreka        | Leitzako erreka        | Soramearretako erreka |
| Antzolagako erreka          | Eizkue                   | Lizarreta              | Soroberri             |
| Antzolagako iturria         | Elizburu                 | Loidiko borda          | Soroburu              |
| Añarbeltza                  | Elorria                  | Lontxaren harrobi      | Soroluze              |
| Aranaldeko borda            | Elorriko bidea           | Maietako mintegia      | Sutegi                |
| Arantzegieta                | Elutsaundi               | Malorensoroeta         | Sutegiko errota       |
| Arbitxiko borda             | Elutseder                | Mañeneko borda         | Telentxoenea          |
| Arotzeneko borda            | Elutseko erreka          | Mañenen soro           | Tellagurreta          |
| Arotzeneko bordako borda    | Elutseta                 | Maringoneko borda      | Tellagurretako erreka |
| Arragoalde                  | Enekoritz                | Martiñeneko borda      | Telleriko borda       |
| Arraiagoko borda            | Epeleta                  | Matxaindena            | Telleriko bordaldea   |
| Arrate                      | Erlatxe                  | Matxarin               | Telleriko erreka      |
| Arriko iturria              | Ermitaiturria            | Matxaringo erreka      | Tellerisoro           |
| Arrozpide                   | Errandoneko borda        | Merkuko bidea          | Tortoa                |
| Arrozpideko erreka          | Errekabitate             | Merkuko erreka         | Tranpa                |
| Astalardi                   | Errekaundieta            | Merkuzelaia            | Trintxelekueta        |
| Astalardiko bidea           | Errekazarreta            | Meru                   | Txillenea             |
| Astamela                    | Errialdeko malda         | Meruko bidea           | Txillon txabola       |
| Astamelako erreka           | Errotazar                | Meruko erreka          | Txurinea              |
| Astubia                     | Errotazarra              | Museo                  | Ubideko borda         |
| Atarisoro                   | Etxarriren partzela      | Museoko bidea          | Ubidesoro             |
| Atiotz                      | Etxeberriko borda        | Musun                  | Uitzarraundi          |
| Atioztaran                  | Etxetxikiko borda        | Mutilen baso           | Uitziko zelaia        |
| Atxonborda                  | Gañarbe                  | Muñoaundi              | Uitzizabaleta         |
| Atxulegi                    | Gañarbeko bidea          | Nekasoro               | Ulegi                 |
| Atxulegiko aska             | Gañarbetxiki             | Olaitxeta              | Uliberri              |
| Axeneko borda               | Garaikoetxea             | Olaitxetako borda      | Ulimendi              |
| Axuste                      | Garaikoetxeko borda      | Olamuño                | Ulimendiko bidea      |
| Axusteko bidea              | Garraldapa               | Olondo                 | Ulizar                |
| Axusteko lepoa              | Garroko borda            | Olarte                 | Unialde               |
| Azarizuloeta                | Gereñoenea               | Olazar                 | Unialdeko bidea       |
| Azinzineko borda            | Goñegi                   | Olloneko borda         | Urkiolako borda       |
| Azinziniturri               | Goñegiko bidea           | Opuru                  | Urnieta               |
| Azkonarzuloetako erreka     | Gorritiko bidea          | Osinluze               | Urriti                |
| Barbereneko borda           | Guratz                   | Otaberro               | Urrizpialde           |
| Basabe                      | Gurutzeta                | Oterre                 | Urteaga               |
| Basenarreta                 | Gurutzetako hegia        | Otsaida                | Urtezar               |
| Beazeaundi                  | Harrobiko iturria        | Otsaidako borda        | Urtxabaleta           |
| Bezeberri                   | Ibiur                    | Otsansagasti           | Urtzuriain            |
| Beheko soroeta              | Iertzaundi               | Otxoneko borda         | Urtzuriango erreka    |
| Belagaz                     | Illunbe                  | Otzondoko borda        | Ustakiñeñeko borda    |
| Belaku                      | Illunbeko erreka         | Paretaberrieta         | Ximolaki              |
| Belakuko borda              | Illunbeko iturria        | Pausona                | Zatokil               |
| Belakuko erreka             | Ipiñarko gurdibidea      | Pausonako bidea        | Zotzono               |
| Beltzarriturri              | Irristaluze              | Pausonako erreka       | Zubiaundieta (1)      |
| Beratremendi                | Irumugarrieta            | Perratokieta           | Zubiaundieta (2)      |
| Berendi                     | Irumugarrietako bidea    | Preuneko borda         | Zubiberrieta          |
| Besazabal                   | Iruñegi                  | Preuneko bordako borda | Zubiriko txabola      |
| Biarrieta                   | Iturbeltza               | Pilipeborda            |                       |



keta polita da, eta horretara animatzen zaitugu.

Liburuan ez da izen guztien gaineko oharrik egiten, baina bai zenbaiten inguruan. Horietako batzuk aipatuko dizkizuegu jarraian, interesgarria irudituko zaizuelakoan.

- **Ibiur.** Ezagutuko duzue, akaso, izen horren esanahiaz proposatu izan den irakurketa. Bi erreka elkartzen diren tokian dagoenez, norbaitek esan omen zuen: "(h)i, bi ur". Alegia, "hi, bi erreka zudek hor". Eta hortik "ibiur" izena. Ez da oso azalpen sinesgarria, baina bai kuriozosa.
- **Irristaluze.** Izen honek bi osagai dauka: "irrista" hitza (toki irristakorra), eta "luze". Garoa eta egurra jaisteko tokia zen.
- **Altxaiño.** Liburuak azaltzen duenez Guratz mendiari ere horrela deitzen zaio. Lau herriren arteko muga dago bertan: Areso, Leitza Gorriti eta Uitz.
- **Arrozpide.** Koldo Mitxelenaren ustez izen honen esanahia "arrotz" eta "bide" hitzetan bilatu behar da. Alegia, "arrotzen bidea" izanen litzateke. Aresori dagokionez, Gipuzkoako mugaren ondo samarrean dagoen bide baten izena da Arrozpide.

- **Lapurzulo.** Izenak argi asko erakusten duen moduan, "lapurren zuloa". Garai batean, Gipuzkoa Gaztelaren menpe gelditu zenetik batez ere, muga inguru honi "gaizkileen lurraldea" esan ziztaion. Baliteke "lapurzulo" bezalako izenek horrekin zerikusia izatea.

Horiek, horrenbestez, guk artikulu honetara ekarri ditugun adibideak. Liburuan ohar gehiago ere badira izen hauen inguruan, eta bertan kontsulta ditzakezu.

Izen horiek guztiak gure herriaren ondarea dira, eta kasu askotan gure herriaren eta gure aurrekoen historiaren isla. Komeni da, beraz, izenak gordetzea eta zaintzea. Bizimodua aldatu da, noski, eta garai batean izen horiek ezagutzeko beharra askozaz handiagoa izanen zen. Mendian lana edo bizitza egiten zutenek, ziur asko, ongi ezagutu beharko zuten

paraje eta txoko bakoitzaren izena, haien lanerako eta bizitzarako behar-beharrezkoa zelako.

Gaur egun, bizitza dezente aldatu zaigunez, aurrera ateratzeko ez dugu toki horien guztien izena nahitaez jakin beharrik, eta jakin gabe ere ederki molda gaitzke. Hala ere, gure ustez behintzat, haiek gordetzea eta ezagutzea interesgarria da, gure iragana ezagutzea eta gure kultur aberastasuna zaintzea garrantzitsua delako. Herri batek bere nortasuna eta identitatea gorde nahi baditu, bereberek diren gauzei eutsi behar die. Ziur samar esan dezakegu Aresoko toki-izenak berta-bertakoak direla. Hemengo izen batzuk beste herri batzuetan ere aurkituko ditugu, baina beste asko hemen eta ez beste inon sortuko ziren, eta toki-izen guztiek osatzen duten izen multzo horrek ez dauka berdinik beste inon.

# Casilda Irazusta

## AZKEN EMAKUME ERROTARIA

ELDUAN JAIO, ETA ARESON  
EZKONDUTA ERROTAN  
LANEAN HASI ZEN



**C**asilda Irazusta azken emakume errotaria dugu. Lanbide horren inguruko oroitzapenak jaso ditugu elkarrizketa honetan, baita garai horretako beste kontu batzuk ere. Izan ere bizipen ugari pilatutako emakumea dugu Casilda, interesgarri askoak denak ere. Etxean hartu gaitu, eta jarraian duzue, labur bilduta, bere ahotik jaso duguna.

**Errotari lanetan hasi zinenean ba al zenekin, Casilda, errotari buruz zer-bait?**

Ezzzzzz, ....baina berehalaxe ikasi nuen.

**Eta zuen errotan, zer ale mota igotzen zenuten?**

Artoa eta garagarra gehienbat.

**Nola ekartzen edo garraiatzen zituzten aleak?**

Zakutan. Honera toki askotako jendea etortzen zen: gorretiarra, beasteiarrak, orexatarra, leitzarrak...

Gorretiarrek menditik etorri eta askotan eguna aprobetxatzen zuten, goizean etorri eta buelta egun berean egiteko asmotan. Neguan, ura asko bazen, hemen eguerdia pasatzen zuten, baina batzue-

tan errota zikintzen zen eta errotaren azpira sartu behar zen garbitzeko: konporta ireki eta presa hustu, makil zaharrak, poteak, zaborra... libratu, eta gero itxi presa, kargatu, konportak itxi eta berriro hasi lanean, eta irina bazen eramateko, eraman.

**Eta nola igotzen zen alea?**

Guk txikitu eta molitu egiten genuen. Denbora asko behar da molitzeko, fin-fina egiteko, asko kostatzen da, oso sekoka behar zen, erregulatu egiten zen, eta arto irinak oso fina behar du taloetarako;

animalientzat ez du hainbeste inporta, txikitzearekin nahikoa zen.

### Zer izena dute errotako tresnak?

Aspilak ditu aurrean, tornua erregulatze-ko, bi harri handi eta gainean kaja bat, "TOLBA" deitzen dena. Alea harri tartean pasatzen da eta leundu egiten dira harriak. Eta tarteka pikatu behar izaten ziren harriak, zizelarekin eta mailuarekin, arrasto finak berriro egin behar ziren, gastatu eta ondoren bastoagoa edo finagoa ateratzen baitzen irina. Nire senarrak oso esku ona zuen.

### Zer sari zuen artoa igotzeak?

Askotan galtzen ateratzen ginen. Artoa bustia ekartzen zutenean, ekarritako pisua nahi zuten eraman, ekarritako guztia nahi zuten eraman, ez zuten konprenditzen, galera baitu txikitzean: txikituz lehortzen zen eta pisua gutxitu, baita azala kentzen zaionean ere. Hori galera da eta izugarritzko haserreak izaten ziren, gainera irina fina behar zenean "bayen" pasatzen zen. Askotan guretik jarri behar izaten genuen.

Batzuetan, molitu eta gero azken tubotik pasa eta gero, bidean gelditzen zen irin guztia eraman nahi izaten zuten. Duroa eta lakaria zen ordain saria, baina askotan galtzen ateratzen ginen, ez hasarretzeagatik. Kilo bat intxaur erosi eta azala kentzen badiozu, zenbat gelditzen da ba... hori berbera gertatzen zen hemen.

### Eta zer-nolako neurriak erabiltzen ziren garai hartan?

Nik almutea, lakaria eta erregu erdia goratzen ditut.

### Argindarrik ba al zen errotan?

Hemen aldamenean bazen beste errota bat eta handik argindarra botatzen zuten; hura soziedadea zen eta egunero batek botatzen zuen argindarra. Errota hau oso iluna da eta beti argia behar zen, askotan egun eta gau lanean aritzen baidin. Errota honek ura bakarrik behar zuen lanerako.

### Etxean talo eta arto asko egiten al zenuten?

Jesus...! Asko eta onak gainera, papera bezalakoak, milimetrokoak, beti txapa-



ren gainean erretzen nituen, eta txapela ateratzen zitzairen, hori gazta barrenean sartzeko, eta esnearekin, bero-beroa... earra!

### Casilda, asko gustatzen zaizkizu loreak.

Askok! Hortentsia guztiak nik jarritakoak dira, *flor de azahar*, *copo de nieve*, denak nik aldatuak dira, eta hemengo pluma hori ere bai. Arrosak hemen goikaldekoak. Betidanik, udan, beti lore asko izaten genituen, uff...., beti hortxe aitzurrarekin, ez zitzaidan inporta, etxea garbitu baino gehiago kanpoko lanak ditut gustoko.

### Azindarik ba al zenuten?

Bai..., errota eta azindak. Bi behi, txekorra, oiloak, astoa, behorra (Loba deitzen zena), txerriak ere bai, eta gero behiak kendu egin nituen. Ikuilua dena konpondu eta txerritegia egin nuen, untxiak ere bai, alergia niela konturatu eta laster kendu nituen. Urte onak izan ziren, txerriak diru asko egiten baitzuen.

### Oso gazte alargun gelditu zinen. Nola atera zenuen bizimodua?

Errotaz aparte, kopeletxeak, garai hartan kamioia bete zaku ekartzen zuen, guk igotzeko, eta karretillan jeitsi gero molitzeko,

Aisoako, Leitzerako. Beti izaten zen lan asko, garagarra izugarri beti ere.

### **Eta nola gogoratzen duzu garai hura?**

Oh...., ez nuke nahi berriz horrelakorik pasa, oso txarrak, urte txarrak, goizetik gauera lanean, eta gauetan ere bai, askotan gau osoan lanean...

Leitzako eskolako komedorean lana eskeini zidaten, urtebete egin nuen, eta gero alde egin nuen. Garai hartan ez zen segurorik ordaintzen, gehiago irabazten bainuen etxean, egun osoa etxetik kanpo eta gero etxeko lanak denak niretzat, egunez kanpoan aritu eta gero etxekoa... utzi egin nuen.

### **Etxean lanean arituta hobeki, beraz.**

Esan dizudan bezala segurorik ez, alargun pentsioarekin bizitzen nintzen, seguroak nik ordaintzeko atera eta gainera irabazi, oso zaila zen. Alabak 12 eta 11 urtekoak nituen... Ez, erabaki ona hartu nuen.

### **Fruta-arbolak ere gustoko dituzu. Zer fruta-arbola dituzu?**

Sagarra, udarea, arana, gereziak ere bai, anpolaiak eta arranpalak, handiak eta gorrikoak, anpolaiak beltzagoak. Sagarra errezila, reineta, aragonesa, gorriak, sagar gazia. Gero bildu eta ganbaran txabal-txabal jartzen ziren, eta usteltzen zena txerrientzat. Intxaurrak ere asko, Jesus...! Hau baino bi aldiz handiagoa dago atze-

ko partean, urrak ere bai, gaztainak, pikuk... asko, eta denetatik.

### **Txerria hiltzen al zenuten?**

Bai, neguko janaria izaten zen, txistorrak, urdaiazpikoak..., kontserban jarri, oliotan, eta negua pasatzen genuen.

### **Gogoratzen al dituzu garbiketako lanak? Nolakoak izaten ziren?**

Hasieran errekan. Gero senarrak ura ekarri zuen, iturria bilatu lbiurko aitonak lagunduta, Felipe bordatik behera honera ekarri zuen.

Kanalean arropa garbitzen nuen, losa baten gainean, gero belazean jarri eguzkitan eta asko zuritzen ziren, belaneuko jarri eta gogor astindu behar zen arropa. 15 egunetik lixua egiten zen, festa aurrean koloreak paretak pintatu eta koltxoiak egin, hustu, artilea atera eta astindu, askatu eta makilarekin jo, eta berriro egin.

### **Eta segan ere aritzen al zinen?**

Jesus... egunero, pikatu ere bai, zenbat aldiz.... Beharko. Laian ere bai, txikitanga ebakitzen ere aritzen ginen, pilatuta utzi, bildu eta mugitu, lastada oso zaila zen erretzen, argia egiteko erabiltzen genuen.

Elduan toleara ere bagenuen, kriston sagardiak genituen, zertarako pentsatu ere... gureak eta beste etxekoak txikitzeke, 7 gurdi eta gehiago kabitzen ziren tolearan. Sagardoa egin, bakoitzak botilak etxetik

ekartzen zituen, mota askotako botilak, kortxoak nonahitik sortzen ziren, makina bat doain egin genien. Gurdia ganbaran sartu eta bertan buelta ematen zuen, sagar mota guztiak nahasten ziren, hura bai sagardo earra! Otorduero sagardoa edaten genuen. Anaia zaharra ezkondu zenean nik neskame alde egin nuen.

### **Umetako eta eskolako oroitzen?**

Aitak asko zigortzen gintuen. Alargun gazte gelditu zen, lana egin behar genuen, nik ardiak zaindu eta eskolara joan behar nuen, eta berandu ailegatuz gero, multa ordaindu behar zuen aitak, garai hartan 5 pezeta. Nire pantorrikak beti markatuak egoten ziren. Nik irakurri eta idazten ikasi nuen eta euskera eta erdera menperatzen nituen, nere aiton amonak Uruguaytik etorri baitziren eta nire amak oso ongi egiten zuen bi hizkuntzetan. Nire ama txikia zenean, Donostiara zaldietako karruajea joaten zen eskolara, aberatsak baitziren eta gainera baditugu argazkian sonbre-roarekin jantzita.

### **Eta gaztetako oroitzen?**

Oso ongi pasatzen genuen, kalabazak hustu, bela bat barrenen jarri eta leihoetan jarri. Garai hartan Kalparsoroan neska askok egiten zuen lan, eta iluntzetan ateratzen zirenerako beti txantxak prestatzen genituen, kalabazak neskak kaletik pasatzekoan makilarekin mugitzen genituen, haien laisterra... (barre egiten du). Ederki ibiltzen ginen, ilunabarrean juntatu eta okurrizten zena egin. Zenbat korrika...

Garai hartan mendiz mendi Belabietatik Amasara eta gero, tranbia hartu eta ordaindu gabe, Amarara, Erreala ikustera joaten ginen korrika baten, Atotxara. Ez genuen ordaintzen, nolabait moldatzen ginen sartzeko eta pasa egiten ginen. Neska mutilak joaten ginen, eta garai hartan estropadak ikustera ere bai, Trintxerpe, Orio... betikoa zen eta ona gainera, irabazi egiten zuen. Donostiako bandera ikustera ere bai, korrika ederrak egiten genituen, ez ginen gelditzen korrika egitetik, Jesus...!

Horixe Casildak kontatu diguna. Nekatu ere egin da eta lasai utziko dugu. Hortxe dugu Casildaren erretratoa: emakume ausarta, langilea, eta bizitzari aurre egin diona.



# ARESO INTERNETEN

**D**uela urte batzuk, ez genuen gaur egun dugun baliabiderik edozein informazio mota eskuratzeko; egun, ordea, ordenagailu aurrean jarri eta Interneten sartu besterik ez dugu. Bertan edozein gauzarekin egin dezakegu topo, baita atal honetan topatuko ditugun bi-

txikeriekin ere, betiere gure herria protagonista dugula.

Aresoko herritarroi, Areso izena entzutearekin batera gure herria datorkigu burura. Baina badaude gure herritik haratago ere abizen hori duten pertsonak, izen bera duten enpresak, elkarteak...


Interneten, gure herriaren izena sartu besterik ez dugu eta berehala ohartuko gara Areso izena ez dela gure herrira bakarrik mugatzen.

Hona hemen topatu ditzakegun bitxikerietako batzuk:



<http://www.farc.al.org/ENLACES.html>

Gure herriaren izena daraman Soriako alkoholiko errehabilitatuen elkarte. Asociación de alcohólicos rehabilitados de Soria (Areso).



<http://es.wikicule.wikia.com/wiki/Areso>


Pedro Pablo Areso Aranburu, XX. mende hasieran Ordizian jaiotako futbol jokalaria, besteak beste Bartzelonako futbol taldean, Euskal Selektzioan eta Betisen aritua.





<http://es.wikipedia.org/wiki/Areso>

Web orri honetan Aresori buruzko informazioa topatuko dugu (toponimia, kokapena, armarrria...)




<http://www.areso.info>  
Aresoko udalaren web orria.



<http://www.aresoantes.com>

Cascanten dagoen enpresa bat da, bertan albaitarientzako eta elikagaien industriarako produktuak egiten dituzte: eskularruak, maskarak, txanoak...



<http://www.clinicaveterinariaareso.es>  
Tuterako albaitaritzza klinika, kardiologia eta traumatologian espezializatua.



<http://www.areso.asso.fr>

Eko-eraikuntzako elkarte. Association Régionale d'Eco-construction du Sud-Ouest (Areso).


# GURUTZEGRAMA

## GOITIK-BEHERA

1. Garai bateko burdinola.
2. Aresoko ermita.
5. Atallu eta Areso errekek elkartzen diren eremua.
7. Itxura txikiko zuhaitza.
8. Herriaren Hegoaldean kokaturiko parajea, autobideak zeharkatua.

## EZKER-ESKUIN

3. Elurrik gabeko lur unea.
4. Areson dagoen Erdi Aroko zubia.
6. Guratz mendia izendatzeko beste modu bat.



Erantzun zuzenak:  
 1. Olazar, 2. Santakruz, 3. Lurmendi,  
 4. Zubiaundieta, 5. Biureta,  
 6. Altxaiño, 7. Tortoa

# LETRA ZOPA

## Aresoko erreka izenak:

- Albitxuri
- Ametzeta
- Antzola
- Arrozpide
- Astamela
- Azkonarzulo
- Belaku
- Egitxipi
- Elutse
- Illunbe



# ZER DA?

Gure aiton-amonek eguneroko bizitzan erabiltzen zituzten hitzak dira behekoak; gaur egun oraindik batzuk erabiltzen dira. Ea zenbat esaten dituzuen ongi.

1. Elorri beltzaren fruitu morea, patxarana egiteko anisetan sartzen dena.

- Bujanda
- Antximolie
- Kisupipa

2. Ingurutxoaren soka-dantzan azkeneko doan dantzaria.

- Atzelari
- Sabe
- Karraka

3. Lastoz edo arto txurikinez egindako etzaleku edo koltxoia.

- Garidi
- Lastai
- Morko

4. Lanean indargabe eta justu-justu ari denaz esaten da.

- Alox-aloxean
- Zilizti-zalazta
- Xirriki-xarraka

5. Belar txarra.

- Lapaitz
- Langar
- Suandor

6. Erbinude. Bizkar arre eta sabel txuriko ugaztun ttikitxo eta urduria.

- Liñarri
- Txinge
- Ergonei

7. Etxegintzan, zapatatik goiko haga bitarte, teilatuari eusteko jartzen den ohola.

- Kapirio
- Ubirin
- Txinge


8. Babarrun landarea heltzeko erabiltzen den zirria.

- Laumaiko
- Panpanoziri
- Lixuerre

Erantzun zuzenak:  
1.- Antximolie; 2.- Atzelari; 3.- Lastai; 4.- Alox-aloxean; 5.- Lapaitz; 6.- Ergonei; 7.- Kapirio; 8.- Panpanoziri

# HIROGLIFIKOAK

1. Udaberriarekin batera, haien lurrin eta zaporeaz gozatzeko aukera izaten dugu.



2. Aresoko etxe baten izena.



3. Hogeit bat kiloko neurri-ontzia, fruta, banabarra... neurtzeko erabiltzen zena.



Erantzunak:  
1.- Maraburue; 2.- Ibiur; 3.- Erregue



## ALDIZKARIAREN TZAKO IZENAK

Honezkero ez dago ustekabekorik, eta denok dakizue zein den Aresoko aldizkariaren izena: PANPANOZIRI. Proposatutako izen guztien artean, horixe aukeratu zuen aldizkaria osatu duen lantaldeak. Besteren bat ere izan zitekeen, baina hori aukeratu genuen, oso bertako hitza delako, haren doinua gustuko genuelako... eta, azken batean, nahitaez baten alde egin behar zelako.

Baina, esan bezala, proposamen gehiago ere bazeuden. Izan ere, aldizkariaren izena jarri baino lehen, herritarren proposamenak jasotzea erabaki genuen, eta baita egin ere. Etxe guztietan banatutako oharra erantzun ona izan zuen, eta guztira 28 proposamen jaso genituen.

28 izen, 28 ideia, 28 aukera. Bertako toki-izenak, edo esamoldeak, edo esaldi laburrak... izena sortu edo proposatu zuten guztiek izanen zuten beren arrazoia eta denek balio zezaketen. Bat aukeratu behar, ordea, eta badakizue zein hautatu genuen.

Baina egindako ahaleginak nolabaiteko saria ere merezi du, eta aldizkarian bertan denen berri ematea izan liteke ahalegin hori eskertzeko modua. Horixe egin dugu, eta hementxe dituzue, ordena alfabetikoan jasota, bildutako proposamen guztiak.

|                        |                          |               |
|------------------------|--------------------------|---------------|
| ALTZEI                 | GOAZEN                   | PAGADI        |
| ARESON<br>GERTATUTAKOA | GURATZ                   | PANPANOZIRI   |
|                        | HAMIKA                   | SETOSOAK      |
| ASKA                   | HEMEN GEA                | TXENDA        |
| ASTAMELA               | IPARRORRATZ              | ULI           |
| BAGEA                  | KUXKUXEN                 | ULIPE         |
| BAGOAZ                 | KUXKUXERO                | XIRIMIRI      |
| BERRIKETAN             | MARABURUE                | ZE BERRI DAU? |
| BERTAKO                | MATXAIN IBIUR<br>BITARTE | ZE PASTEAK    |
| ELKARREKIN             |                          | ZUPIE         |